

## **DEBA-GOIENA / Mankomunitateak neguko gida kaleratu du irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko**

Bergara. Neguan irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko helburuarekin, Debagoieneko Mankomunitateak, udal liburutegiekin batera, 2009ko Neguko gida argitaratu berri du, adin eta gustu ezberdineko herritarrei zuzenduta.

Guztira, bost mailatan banatu dituzte proposamenak: 0 urtetik aurrera, sei urtetik gorakoentzat, bederatzi urtetik aurrerakoentzat, gazteak eta helduak, hain zuzen ere. Era honetan, marrazki eta ipuinak gomendatzeaz gain, eskualdeko liburutegietan lor daitezkeen disko eta film batzuk ere aurkitu ahal izango dira esandako gidan, besteak beste, Jason Collett-en Here 's to being here diskoa, edo Sindney Lumet zuzendari bezala izan zuen Antes de que el diablo sepa que has muerto izenburuko pelikula. informazio gehiago Lan horretan bestelako informazio erabilgarria ere sartu dute, esaterako, udal liburutegien ordutegiak eta telefonoak. Hau dena aipatutako zerbitzuetan eskura daiteke. >a.d.